

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

279/2019, Foru Agindua, ekainaren 18koa. Zeinaren bidez aldatzen baita 2019 eta 2020 kanpainetan mahastiak berregituratzeko edo birmoldatzeko laguntzetarako eskaerak, martxoaren 12ko 115/2019 Foru Aginduaren bidez onetsiak, aurkezteko epea

Martxoaren 2ko 115/2019 Foru Aginduaren bidez, mahastiak berregituratzeko edo birmoldatzeko laguntzetarako deia egin zen 2019 eta 2020 kanpainetarako, eta foru agindu horretan, laguntzak eskatzeko datak eta epeak ezarri ziren kanpaina horietarako; baita ordaintzeko epeak ere. Foru agindu honek oinarri ditu Espainiako Mahastizaintza Sektorearentzako 2019-2023 Laguntza Programaren Neurriak aplikatzeko 5/2018 eta 1363/2018 Errege Dekretuak eta Eusko Jaurlaritzaren 26/2019 Dekretua, zeinaren bidez ezartzen baitira Euskal Autonomia Erkidegoan mahastiak berregituratzeko eta birmoldatzeko eragiketarako Europako laguntza-neurria garatu eta aplikatzeko neurriak, bai eta Euskal Autonomia Erkidegoko mahastizaintza sektoreari Europako 2019-2023 laguntzak emateko neurrien estatuko oinarritzko arauak ere.

Azaroaren 2ko 1363/2018 Errege Dekretuak bere 39. artikuluko 1. apartatutan jasotzen du ezen, eragiketa bakoitza bukatzean, onuradunak eskaera edo jakinarazpen bat aurkeztu beharko duela laguntza ordaintzeko haren autonomia erkidegoko organo eskumendunean, hark zehazten duen epean, baina ezin izango da izan eragiketa bukatu den NBEF ekitaldiko uztailaren 31 baino geroago.

Administrazio prozedurak arrazionalizatzeko bai herritarrei begira bai administrazioan eskuragarri dauden baliabideak behar bezala antolatzeari begira, komeni da jakinarazpen bakar bat egitea esateko eragiketak bukatu direla, eta izan behar da ordainketa eskaera bera; hau da, ez da bi gauzak egin behar, hau da, jakinaraztea eta eskaera egitea.

Hortaz, Mahastizaintza eta Enologia Zerbitzuak proposatzen du egokitu eta alda daitezela urte bakoitzeko urriaren 15a baino lehen egin beharreko ordainketa eskaerak entregatzeko 115/2019 Foru Aginduan ezarritako datak. Data horiek, zeinak 2019ko irailaren 13an eta 2020ko irailaren 18an baitira hurrenez hurren, egokitzen den urtearen uztailaren 31n ezarri behar dira bi kasuetan.

Horren ondorioz, dagozkidan ahalmenak erabiliz, honako hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Aldatzea 2019 eta 2020 kanpainetan mahastiak berregituratzeko edo birmoldatzeko laguntzetarako eskaerak, martxoaren 12ko 115/2019 Foru Aginduaren bidez onetsiak, aurkezteko epea. Hona hemen ordainketa eskaerak jasotzeko epeak:

1. 2019ko urriaren 15a baino lehen ordainduko diren ordainketa eskaerak aurkezteko epe-muga 2019ko uztailaren 31n ezartzea, eta ez 2019ko irailaren 13an.

2. 2020ko urriaren 15a baino lehen ordainduko diren ordainketa eskaerak aurkezteko epe-muga 2020ko uztailaren 31n ezartzea, eta ez 2020ko irailaren 18an.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2019ko ekainaren 18a

Nekazaritza Saileko foru diputatua

EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria

MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE